

Aretxabaleta,
1994ko otsailak 10

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Musika eskola

• Leintz Lanbide
Ikastegia

• Afizioak:
Miguel Angel
Pascual

• Argazki rallya



Izena: Oihana Berasaluze
Ofizioa: Txilarra belardendako dendaria
Afizioa: Mendira joatea
Bizioa: Txokolatea jatea
Misioa: Traba ez egitea

- **Armozatu zer?**
- Kafea besterik ez.
- **Koloniarik bai ala ez?**
- Bai, baina freskoak.
- **Dutxatu ala bainatu?**
- Dutxatu.
- **Mutilak belarritekoaz ala barik?**
- Bardin dit, belarritekoaz edo barik.
- **Gustokoen duzun taberna?**
- Arlutz.
- **Eguzkia ala edurra, zer gurago?**
- Eguzkia.
- **Zure amestutako lanbidea?**
- Ez dut sekula amestutako lanbiderik euki.
- **Hiru gauza irla batera eroango zenituzkeenak?**
- Konpainia apur bat, lagun batzuekin nahikoa izango nuke.
- **Musika talde edo kantari gogokoena?**
- Anjel Duhalde.
- **Atxabaltan bizitzeko lekuri onena?**
- Goi aldea, Loramendi aldea.
- **Telebistako programa gustokoena?**
- Pelikularen bat ez bada ez dakit, baina saioaren bat aitatzekotan Txuri-Beltz.
- **Tila ala menta?**
- Menta.

- **Mediku naturistak ala besteak, zeintzuengan sinesten duzu gehien?**
- Naturistengan gehiago sinesten dut.
- **Stressa, nekea gainditzeko, ze bedar gomendatuko zenuke?**
- Ginsenga.
- **Oporrak mendian ala itsasoan?**
- Mendian hobeto.
- **Euskara batua ala etxekoa?**
- Etxekoa.
- **Beldurra zeri?**
- Batez ere minari, mina eukitzeari diot beldurra.
- **Zer egingo zenuke Urkulun zure esku balego?**
- Dagoenetan utziko nuke.
- **Maltzaga- Urbina autopistaren gainean ze duzu esateko?**
- Hemen nahikoa asfalto daukagu gehiago jarteko. Ditugun errepideak konpondu ezkeronahikoa litzatekeela uste dut.
- **Irakurtzen duzu Aretxagazeta, ze da gehien gutetan zaizuna eta gutxien?**
- Irakurtzen dut. Gutxien gutetan zaidana J.J. Aretxaga da, kritikoezia dela iruditzen zait, ez du kontutan hartzen esaten duena eta min haundia egin diezaioke irakurtzen duenari. Gehien, orokorrean dena, herriko gauzez enteretako bide bat da eta.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoru **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrat **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zelan ikusiko zenituzke Santa Ageda neskak?



Gloria Lasagabaster
(Langilea)

Ondoikusten dut. Denek dibertitzeko neska zein mutilek kolaboratu behar dute.



M^a Carmen Perez
(Langabetua)

Oso ondo, ederto pasatuko lukete denek. Baina gero soldadutzara inor ere ez joatea gustatuko litzaidake.



Maximiano Del Palacio
(Jubilatua)

Ondo ikusten dut ideia hori. Neskek ere eskubide osoa dute Santa Ageda ospatzeko.



Marcelino Duran
(Langilea)

Oso ideia ona irudituko litzaidake. Uste dut konpetentzia berdinak dituztela neskak eta mutilek.

KARTAK

Maltzaga-Urbina autopistaren aurka argudio batzuk

A) Deba Bailarak ez du autopistaren beharrik. Deba bailarako errepideetako komunikazioek hainbat hobekuntza behar dituztela aitortzen dugu. Baina Gasteiz-Galdakao-Behobia ibilbidea edota N-1 errepideren alternatiba izango den ardatz internazional bihurtuko duen autopista edota bide azkarrak ez dute behar hau asetzen. Laburbilduz, bailaren beharrak asetuko dituen errepidea behar dugu eta hau da egungo bidearen inguruan hobekuntza egiteko proposamenar bultzatzen gaituen arrazoiak.

B) Deba bailarak ez du zidor izan behar. Ikuspuntu zeharo teknikitik begiratuta N-1 eta Gasteiz-Galdakao-Behobia ibilbidearen artean erdibideko ardatz alternatiboa egiteak ibilbide luzeko trafikoaren zeharkatzea laburtuko luke epe motzera. Hala ere, epe erdira oinarizko ardatzean zamatzea suposatuko luke. Honela,

Debako korredorea mar txan jarri eta urte gutxitara, beharrezkoa litzateke karril suplementarioez hornitzea edota bestelako neurriak ezartzea honek gainezka egitea nahi ez badugu. Beste herrialde batzuetako esperientzietan ikus dezakegunez, zidorrak hasiera batean denbora murrizketa suposatzen dute, baina bere erabilera areagotzen den heinean bidea kolapsatzen hasten da, denbora murrizketa nabarmenki gutxitzen da erlatibizatu egiten da desgertu arte.

C) Bailarako garapen ekonomikoa ez dago bide azkarrari lotuta. Autopista bat izatea bailaren garapen ekonomikorako ezinbesteko faktorea dela pentsatzea sinpleegia da.

Argiak izan gaitzen, bailarako betiko sektore ekonomikoak lur jota badaude ez da infrastruktura faltagatik, beste hainbat faktoregatik baizik (ezin dute teknologia berri, materiale, produktu... au-

rrean konpetitu). Deba herak aspaldidanik dauka A-8 autopista eta hala ere ezin esan bere egoerak hoberantz egin duenik. Lau dioko kasua...

D) Obra hau ikuspuntu ekologistagatik onartezina dela uste dugu Eguzkin. Bailara honek errespetu askoz handiagoa behar duela uste dugu, kontutan izan behar baitugu bertako oinarizko lurreen batz besteko zabalera ez dela 100 metro baino gehiagokoa, tarte zuzen luzeena ez dela 200 metrora iristen, bailara guztia zeharkatzen duen ibaiak 20 m. inguruko ohandua duela, bailara urbanistikoki gainezka dagoela eta gutxi badira ere balore ekologiko-paisajistiko handiko aldeak dituela.

E) Ezin dugu Bilbo-Behobiako peajea alde batera utzi. A-Bko peajearen kontesioa 2003 urtean amaitzen da, Eusko Jaurlaritzak 2020 urtera luzatu nahi du maniobra honekin Maltzaga-Urbina autopis-


taren gastuen zati handi bat ordaindu asmoz.

Eguzkik peajearen liberalizazioaren beharra berrexijitu nahi du, herriak egindako eskaerari eta dagoen helburuari erantzun asmoz. Kontestu honetan zera jakin nahi dugu: Ba al da Euskal Herrian gaur egun A-Baren liberalizazioa baino ekologikoki kalte gutxiago egiten duen, egiteko errazagoa den, efikazagoa eta demokratikoagoa den trafikoa neurririk?

F) Amaitzeko eta erreflexio gisa:

Eusko Jaurlaritzak Mecsa entresari eskatutako ikerketa batean Maltzaga-Urbina autopistaren bideragarritasun ez azaltzen dela gogoratu behar dugu. Honelako obra erasokorren aurrean, alternatiba garraio publikoa potentziatzea dela berretsi nahi dugu.

EGUZKI



Horra hor gure sorpresa, zapatu arratsaldean Azatzara inguratu ginenean eta bertako erlojuaren kanpai zaratak entzute-rakoan. Erlojuak gutxi gora behera 20 urte zeroan geldituta 9ak eta 17 minututan. Azkenik, martxan dagoela esan dezakegu.

San Blas eguna ospatu zen otsailaren 3an, Sailuenten. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, baina jende ugari bildu zen ermita inguruan.

Ermitara igo zuten gehienek motxilan janari desberdinak eroan zituzten eta meza bukatu ondoren bertara eroandako janaria bedainkatu zuten.



MASAILARIAK
MASAIK
ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA
Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

Marti

Mitarte, 16
☎ 79 01 72

"HERRASTI"

AKEITA ETXEA

CAFES
la Brasileña

Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

IBARRA
ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala



Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77

Dorletako Ama txirrindulari Eskolaren deialdia

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren lana, konpetizio txirrindularitza promozionatzea da. Beraz, urtero moduan aurreratu, eskola honek bere ateak zabalik ditu. Deialdia 1980-81 urteetan jaio-tako neska-mutilei zuzenduta dago.

Gauzak horrela, txi-

rrindularitzan apuntatu gura duzuen denok Jose M. Roldan, 795486 telefonora, edo Jesus Garairengana, 794571-792918 telefonoetara, zuzendu beharko duzue edota Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren lokale-ra. Lokala Valdezate ta-bernaren perean dago eta

eguen guztietan egoten dira bertan arratsaldeko 8'30etatik, 9ak arte. Izena emateko epea otsailaren 28an bukatuko da.

Izena ematen dutenek, 1994ko denboraldian egingo diren konpetiziozko lasterketa desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

• Otsailaren 7tik aurrera Udal-liburute-giak egunkariak ditu irakurgai. Egunkaria, Egin, eta El Diario Vasco izango dira. Horrela, Udal-liburute-giak bere zerbitzuak zabaldu gura ditu eta jende gehiagorengana heldu.


• Kurtzeba- rri Eskolan 1994-95 ikastur-terako aurrema- trikulatzeko epea otsailaren 14tik aurrera zabalik egongo da, 4,30etatik 5,30ak arte. Zuzendaritzara jo ezazue.




Ion Antxia zenari omenaldia egin zitzaion joan zen zapatuan, Ibarako futbol zelaian. Bertan, U.D.A.k, lora sorta, plaka eta jokalariek guztiek sinatutako baloia eman zitzaizkien bere familikoiei.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxab. Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa.: 79 18 44
Faxa 79 29 41

Basotxoko bazkide txartelaren barriztapena

Basotxo jubilatuen elkarteak, bertako bazkideei jakinarazi gura die, 1994. urtealdirako bazkide txartelaren barriztapen epea zabalik dagoela eta horrela jarraituko duela otsailaren 28ra arte. Otsailaren 28an beraz, bazkide txartela barritzeko azken eguna izango duzue.

Basotxok, urtean zehar, bere bazkideei eskaintzen dizkion hainbat zerbitzu eskuratzeko derrigorrezkoa izango da txartel barria izatea. Gauzak horrela, oraindik txartela barriztu barik duzuen jubilatuok azkar ibili, epea bukatu baino lehenago txartela egina izan dezazuen.

Barriztapenaren prezioa 350 pztakoa da. Eta Basotxoko bulegoa astelehenetik eguakotxera arte dago zabalik. Goizez, 11'30etatik 12'30ak arte eta arratsaldez, barriz, 5'30etatik 6'30ak arte. Epea, goian aitatu dugunez, otsailaren 28an bukatuko da.



Aratusteak gainean

Aurreko Aretxagazetan, aratusteetako domekan egongo zenari buruz idatzi genuen. Otsa ilaren 15ean, martizenean ere ospatuko dira kamabalak eta hauxe izango da programa:

Arratsaldeko 3retan Incansables txarangari ongi etorria eta jarraian kalejira. 5,30etan Herriko Plazan japoniar bonben jaurtiketa. 6,30etan buruhandiak.

Eta 1994ko aratus-

teei bukaera emateko Txinoa erreko da.


Txinoaren Komitubak Mitarte plazatik urtengo du Herriko Plaza-runtz. Lutoz jantzita eta kandlekin joatea gomendatzen da.

Argazki Rallya

Murruxoko argazki sailak, Aretxabale-tako Udalaren laguntzaz, datorren otsailak 13rako l. Argazki Rallya antolatu du. Lehiaketan horretarako izen ematea, goizeko 11etatik ordu 1ak arte izango da Murruxoren lokalean. Parte hartzaile bakoitzari errebelatua daroan diapositiba karrete bana emango zaio eta izen emateak 500 pezetako kostua izango du. Gaia, urteeran jakinaraziko da.

Diapositiba bilduma onenarendako 10.000 pzt. eta trofeoa izango da, 2.ak 5.000 pzt. eta trofeoa. Sari banaketa eta diapositiba proiektzioa otsailaren 19an, zapatuan, 6etan izango da Murruxoren lokalean.

Antolatzaileak argazkien kopiak egiteko eskubidea izango dute. Goian aitaturako oinarrietan azaltzen ez den arazoren bat sortuko balitz, erabakia euren esku geratuko litzateke. Horretaz gain, dispositibaren bat hondatuko balitz errebelatzerakoan eurek ez lukete bere gain hartuko. Animatu zaitzte parte hartzera.



Leintz Lanbide Ikastegiko barrizketak

Leintz Lanbide Ikastegiak otsailaren 4an, San Juan Bosko egunaren ospakizunetarako areto barria inauguratu zuen. Hau izango da, azkenengo obra, nahiz eta beste handitze batzuegiteko asmoa izan.

Baina horretara helitzeko bide, ate eta arazo asko gurutzatu behar izan dituzte. Hau guztia jakiteko, Xabier Urze-lairekin egon gara berbetan.

"Lanbide Eskola honek hasieran Bergarako eskolaren sail bat izateko urten zuen. Euren asmoa Arrasateko eskolako adar bat izatea zen. Baina denborarekin dirulaguntzak gutxituaz joan ziren eta gu ere Arrasateko Eskolatik urrunduz joan ginen. Momentu hartan

arazo asko genuen; irakasleak Donostiatik etortzen zitzaizkigun, eskola publiko ala pribatu izatea erabaki behar genuen..."

Azkenean publiko-
ra jotzea erabaki zuten. "Orduan irakasle guztiok oposaketak ateraten hasi ginen. Apurka-apurka eskola forma hartuaz gindoazen."

Baina Leintz Lanbide Eskolak Heziketako lehenengo maila besterik ez zeukan eta bigarren maila egitera ikasleak Arrasateko eskolara joaten ziren. Urte horietan erreforma sartu zen. "Erreforma horrekin Lanbide Heziketa desagertu egin zen. Baina gure arazoa, erreformako Lehenengo Zikloa geneukan besterik ez geneukan.

Orduan Eusko Jaurlaritza joan ginen Bigarren Zikloa eman ziezaguten eskatzera, baina lehenengoan ukatu egin ziguten".

Egoera horretan lekuren batera jo behar zen eta automozioiko Lanbide Heziketako hirugarren maila hartu zuten. "Nahiko jende zetoirela ikusirik, aurrera egin genuen. Baina elektronikak aldetik Lanbide Heziketa bat zabaldu gura genuen eta ekipo informatikoak izenekoa zabaldu genuen. Beraz gure ikasleak bi bide horien artean geratzen ziren eta guk Bigarren Ziklo baten beharra ikusten genuen. Bigarren Zikloa jarri ezker, ekipo informatikoak desagertu egingo zirela esan ziguten. Orduan

hirugarren modulo atera genuen. Horrela nahiko ondo gertatzen ginen, Lanbide Heziketa informatikoa, REM-a, Bigarren Zikloa eta gero ikasleak gura zutenak.

Baina hori denori aurrera eroateko azpiegitura aldatu eta moldatu egin behar zela ikusi genuen. 88-89 urtean arkitekturekin egon ondoren, erreformak egiten hasi ginen, ordenadore eta elektronikak geletan. Obra horiek aprobetxatuz, eskulanetarako, argazki eta egurra lantzeko tailerak zabaldu genituen, baita teknologia gela bat ere. Horrela nahiko osatuta geratu zen dena. Ondoren, beste erreforma batzuk egiten jarraitu genuen. Beraz azpiegitura aldetik gauza gehienak nahiko ondo geratu ziren, automozio saila izan ezik. Horrek ere aldaketak behar zituen, orduan beste gauza batzuk barriztu genituen eta horrekin batera polideportibo txiki bat eraiki zen. Gure ideia eskolako polideportibo barria herrira zabaltzea da. Azkenengo barrizketa, taberna izan da. Boroa ugari eginda gero htaberna zabaltzea lortu genuen."



Santa Ageda mutilak

Atxabaltako ohituraren artean, inportanteena, Santa Ageda mutila da. Urtero, soldadutzara joango diren gazteek, Santa Ageda bezperan eta Santa Ageda egunean, baserriz baserri eta kalez kale urteten dute hain ezagunak diren bertsoak kantetan.

Santa Ageda bezperan, goizetik, auzo guztietatik eskean ibili ziren Santa Ageda mutilak baserritar jantzita. Goizean Larrino, Azatza, Korueta, Areantza eta Arkarazo auzoetan ibili ziren. Arratsaldean, Izurieta, Galartza, Apotza-Etxebarri eta Oro au-

zoetatik.

Hurrengo egunean kalean ibili ziren, Portasolen hasi eta Santa

Kurtzeraino. Ondoren, herriko plazan ohitura denez banakoa dantzatzuten.

Azkenik ohiturekin jarraituaz, aratuste doken plazan dantzatzuko dute.



Aurtengo Santa Ageda mutil batzuk bertsoak kantetan



Eskolarteko Loramendi Literatur Lehiaketa

Urtarrilaren 28an arratsaldeko 7etan, udal-letzeko ganbaran Loramendi Literatur lehiaketako sariak banatu ziren.

Lehiaketa horretan 3. mailatik gorako ume eta gazteek hartu zuten parte. Denra 206 lan aurkeztu ziren.

Lehiaketa horretako irabazleak honako hauek izan dira:

3-4 mailan ipuine-
tan: Irati Urkia. "B" ere-

duan: Lorena Alvarez
eta poesia mailan Olaia
Barrutia.

5-6 mailan "B" ere-
duan Leire Blazquez,
"D" ereduari Aritz Ga-
rai eta poesian "B" ere-
duan Juan Antonio Cruz
eta "D" ereduari Maita-
ne Barrenetxea.

7-8 mailan "D" ere-
duan Gorka Luelmo.
"B" ereduari Victor San-
tander eta poesian Es-
ther Cabero.

14 urtetik gorakoe-

tan, ipuinean: Saioa
Elordui eta poesian Mi-
reia Olabe.

Sari horiek banatu
ahal izateko epaimahai
lanetan hamabi lagun
hauek ibili ziren; Mi-
rian Txintxurreta, Itxa-
ro Zubillaga, Gurutze
Larrinaga, Arrixu Oli-
den, Dabid Agirre, Ai-
tor Antxia, Saioa Aran-
do, Edurne Zuazabeitia,
Mireia Uribetxebarria,
Jon Sarasua, Alberto
Etxabe eta Jon Antxia.

Basotxoko bazkaria

Urteroko ohiturekin
jarraituaz, martxoaren
lean Basotxo Elkarte-
koek patroiairen eguna
ospatuko dute.

Egun horretan ordu
batetan meza izango
dute Mojetan eta ondo-
ren bazkaria Taberna-
Berri jatetxean. Bazka-
rira apuntatu gura dute-
nek Basotxoko bulegoe-
tatik pasatu beharko
dute, otsailaren 14tik
21era, goizeko
11,30etatik 12,30ak arte
eta arratsaldetan
5,30etatik 6,30ak arte.

Apuntetako derrigo-
rezkoa izango da Ba-
sotxoko karneta aurkez-
tea.

"Bazkariko menua,
menestra, bildotsa en-
tsaladarekin eta etxeko
kopa izango da. Riojako
ardoa eta kafea; eta ba-
zkaria bukatzeko kopa
eta purua. Horrek denak
2.200 pezeta balio du.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Musika eskola erronka barri baten aurrean

Hasierako urratsak

Musika eskola 1985. urtean sortu zen Atxalbaltan. Musika arloan hutsunea somatzen zela ikusita eta hori bete guran jaio zen gaur egun Musika Eskola izenez ezagutzen duguna. Hasieran musika munduan mugitzen zen jendea, Angel Barandiaran bezalako pertsona batzuk, zenbait gurasorekin harremanetan jarri ziren eta proiektu berria martxan jarri zuten. Euren helburua musika alo-

rrean gehiago sakontzea izan zen; solfeoa bakarrik ematek, beste inguruko musika eskoletan ematen ziren ikasgaiak ematera heltzea.

Hasieran zenbait oztopo gainditu beharrean aurkitu baziren ere, gaur egun musika eskola sendo baten aurrean gaude, 241 ikaslerendako 13 irakasle dabilta lanean.

Irakasle horien mailari dagokionez nahiko altua, inguruko musika eskolen adinakoa, dela

esan dezakegu. Eta ikasleei begira jarriaz ere, oreka lortu dela esateko moduan gaude. Izan ere, lehenengo urteetan apuntetan zen ikasle kopurutik ia erdia desapuntetan zen bitartean, orain ikasle guztiek bukatzen dute ikasturtea.

Eskolak eskaintzen dituen aukerak


Musika eskola, ez ofizial errekonozitua izan da gaur arte, he-

mendik aurrera, barriz, eskola honek ere, baruko mugimendu batzuk bizitzera behartuta dago. "Logse"ri, Gobernua ataratako heziketa orokorreko legegari, eutsi beharko dio aurrerantzean, horrek plan pedagogiko barria eta mailen aldaketa ekarriko du. Eskolako arduradunek esan digutenez, urtean zehar egingo dira aldaketa horiek.

Kontuak kontu, eta egongo diren aldaketak kontutan hartu barik, Musika Eskolak honako aukera hauek eskaintzen ditu: hizkuntza musikal eta kantua ikasteko aukera ematen du. Horrez gain instrumentuen artean, pianoa, akordeoia, gitarra, flauta, saxoa, klarineta, friskornoa, tronpeteta eta tronboa ere irakasten dira eta baita perkusioari dagozkion instrumentuak ere.

Ordutegiari begirada bat emanez, klaseak arratsaldean izaten dira. Orduak norberak ikasi gura duenaren arabera doaz, baina zehaztasun gehiago gura duenaren dako idazkaritza zabalik dauka astelehenetik eguakotxa bitartean, arratsaldeko 5etatik 6ak arte.

Musikaren gainean gehiago sakondu guran eta zehazki atxabaltako musika eskolak ze eskaini eta ze arazo dituen atxabaltarrei gerturatzeko asmoaz, bertako zuzendariaren-gana jo dugu, Angel Barandiaranengana.



Angel Barandiaran, Musika Eskolako zuzendaria

Musikaren alde lanean

• Zein da edade one-na musikan hasteko?

Orain arte, lehen kurtsoko azterketa egiteko esijitzen zen gutxiengo edadea 8 urtekoa zen, gu 6 urterekin preparatorioan hasten ginen. Baina orain lege barriarekin 4 urteko umeez hasi gaitezke. Gertatzen dena zera da, urte hauetako umeekin lan egiteko plan pedagogiko eta irakasle egokia topatu behar dela. Horregatik aurretik ez gara hain mutil koxkorrekin hasi. Gainera guk ditugun lokalak ez dira egokienak ume txikiendako, hauek lan egiteko leku asko behar dute eta.

• Nahikoa da eskola hau Atxabaltarako?

Nik uste dut nahikoa

dela, gainera guk jendeak eskatzen duena baino gauraz gehiago eskaini dezakegu une honetan.

• Musikan jarraitu gura duenak nora jo dezake?

Bada, momentuz Gasteiz edo Donostiara joan beharko luke. Dena dela, gobernuaaren asmoa Euskadi mailan kontserbatorio nagusi bakarra eukitzearena da eta orain bi daude. Beraz gerora begira musika eskolek, oinarrizko irakaskuntza emango lukete, gero erdi mailako maila Gasteiz, Donostia, Durango eta Leioako eskoletan eskainiko litzateke eta kontserbatorio nagusi Bilbokoa izango litzateke.

• Txapelketaren batean parte hartu duzue?

Egia esateko orain arte ez dugu lehiaketa askotan parte hartu, baina badugu esperientzia atsegina akordeoi mailan hain zuzen ere. Arrasaten egiten den akordeoi lehiaketan duela bi urte aurkeztu ginen eta hainbat urrezko domina eskuratu genuen, hurrengo urtean balantzea hobea izan zen, Atxabaltatik joandako ia denek urrezko dominaz itzuli ziren.

• Musikoa jaio egiten da ala ikasiaren puruz egin daiteke?

Musikoa egin daiteke, jakina. Jaiotzez musikoa denak ia ez du ikasi beharrik, hori erdi jenioa da. Hala ere, askotan uste dugu musika ikasten duen batek konposatu, parte hartu eta orkestra batean jotzera heldu behar duela eta hori ez da horrela.

Musikaz disfrutatzeraz ahaletzen txikia eginez samur heldu daiteke, orain jenioa izateko, musikan beste arlo batzuetan bezala, gehiago sakondu behar da.

• Musika gustetan zaion gazteari ze kontseilu emango zenioke?

Kontseilu bakarra emango nioke, kostantzia. Ikasteko samurtasuna edukitzea kalitate ona izan arren, kostantzia izatean, luzera begira emai-

**Ikasten
zabiltzan
instrumentuaz
gutxienez
ordu betez
ensaiatzea
komeni da.
Bestela
prozesua
luzatu egin
daiteke.**

tza hobeak atara daitezke.

• **Zuk, musikaria zaren aldetik, zela baloretan duzu Bakalao, Rock... horrelako musika motak?**

Nik Napoleonek esan zituen berba batzuk gogoratzen ditut: "Musika gutxien molestatzen duen zarata da", eta orduan ez ziren existitzen musika barri horiek. 60. hamarkadan Beatles taldeak egiten zuen musika, ez zen joten aparteko gauzatzat, baina orain konturatu gara oso musiko onak zirela. Beraz, gaur ere, musika barrien barruan gauza onak daudela uste dut. Baina egia da ere, talde batzuk daudela musika eder hori hondatzen dute-

nak. Argi dagoena da musika ona interpretatu edo egiteko erabili behar duzun instrumentua dominatu behar duzula, bestela ez dago musika ona egiterik.

• **Konpara dezakegure musika eskola ingurukoekin, Arrasatekoa edo Bergarakoa kasu?**

Bai noski, irakasle asko ditugu Arrasaten ere irakasten dutenak, beraz inguruko musika eskolen maila badugula garbi esan dezakegu, irakasleak askotan berberak dira eta.

• **Bukatzeo une honetan zeintzuk dira zuen kezka nagusienak?**

Kezkak beharbada ez dira, baina orain barrizta-

Daukagun lokala ona da, baina oso hotza, ez dakit guardia zibila zela ez zen joan lehenago hemendik.

pen prozesu batean murgilduta gaude, plan pedagogiko barria egin behar dugu eta honek besteak beste mailen aldaketa ekarriko du. Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren presionatzen dabil irakasleak zein eskolako papel guztiak legalizatzeko, orain arte ez dugu dena guztiz legalizatuta euki. Horrek denak, diru aldetik koste handiagoa dakar eta guk garbi daukagu diru hori ez dugula ikasleen kuotetatik atara gura, bestela ere nahikoa ordaintzen dute eta. Diru hori bilatzeko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri behar dugu ea posible den hortik ataratzea.



Gaurkoan, gure afizio txoko honetara Miguel Angel Pascual ekarri dugu. Miguel Angelen afizioa gaur egun modan dagoen kirol bat da, irristaketa edo patinetan ibiltzea. Hasieran patinak erosi zitue-nean zartada asko hartu zituela aitortu badigu ere, orain primeran dabil.



Irristaketa, modan dagoen kirola

- Noiz hasi zinen?
- Denbora gutxi da-roat, joan den ekainean hasi nintzen, azkenean irristailu batzuk erostera animatu nintzenean.
- Zela hasi zinen?
- Hasieran etxean praktketan nuen, ekilibrioa mantentzen ikas-teko, gero kalean praktikatzeraz animatu nintzen.
- Gatxa da kirol hau praktikatzea?
- Hasieran patin be-riekin hasi nintzenean oso gatxa iruditu zitzaidan, patin klasikoak es-tabilitate haundiagoa daukate baina barriak

arinagoak dira.

• Zuretzat kirola da patinetan ibiltzea?

• Gezurra iruditu arren oso kirol konple-toa da, hankak, orpoak asko lantzen dira eta gai-nera eskuekin ekilibrioa mantendu behar duzu-nez gorputzeko zati asko lantzen dituzu.

• Zer behar da kirol hau egiteko?

• Irriatiluak, kaskoa, belaunekoak, ukon-dokoak.. hasieran asko-tan jausten zara eta. Umeendako interesga-rria izango litzateke, gor-putza babesteko lehen ai-taturiko tresnak.

• Non praktketan duzu?

• Urkulun edo ga-bean inor ez dagoenean frontoian. Urkulun asko-tan ezinezkoa da jende asko egoten delako eta jendea eskibatzen ibili behar dudalako.

• Zenbat denbora dedikatzen diozu?

• Gutxi gora behera egunean ordu bat. Asko ibili ondoren, progresioa ikusten da. Baina orain-dik gauza asko ikasi be-har dut.

• Garestia da?

• Beno, umeendako horrenbeste diru patine-tan ordaintzeak ez du

merezi, baina afizio be-zala praktkatu gura du-tenendako merezi du. Patin on batzuk 20.000 pztan zuzendu ditzake-zu.

• Kirol hau, orain indarra hartzen dabil, ezta?

• Bai, hasi nintze-nean jende gutxi ze-bilen. Orain Olentzero pasatu eta gero ume guz-tiek daukate patinak, kalean behintzat asko ikusten dira, gainera nik uste dut umeetatik apar-te, edadeko jendeak ere gero eta gehiago praktketan duela.

• Konpetizioetan parte hartzea gusta-tuko litzazuke?

• Bai, baina lehen-a-go zelakoak diren ikus-tea gustatuko litzaidake eta nire moduan ibilt-zen den norbait ikusiko banu, igual animatuko nintzateke.

• Zerbait botatzen duzu faltan?

• Bai, orain jende asko gaudenez pista ba-tzuk botatzen ditut fal-tan, gainera praktketan ume asko ibiltzen da eta leku ona ez daukatenez errepidean ibiltzen dira eta hori oso arriskutsua da.

R. Velasco
J. Fuensanta



■ Asier Guenetxea, Artiach taldeko, Atxabaltako txirringulariak, Mallorcako birako hirugarren etapan lehen postua lortu zuen. 173 kilometro eginda gero sprintean lortu zuen, aurtengo lehen garaipena. Lasterketan Cala Milloren hasi eta bukatu zen eta Asier Guenetxeak 4ordu 57' 06'-ko denbora egin zuen. Zorionak Asier.

Leixargarateko errefujioa

Leixargarateko errefujioa duela 25 bat urte eraiki zen, UDA taldeak hasieratik izan du refujioaren ardura. Dena dela, UDA eta Murruxiko, mendi mailan elkar lanean hasi zirenetik, Murruxikoko jendea izan da refujioaren ardura hartu duena. Beraz, gaur egun refujioa erabili ahal izateko Murruxikora jo behar da.

Eskatzeko orduan ez dago baldintza berezirik, eskatzen den bakarra norbait Murruxikoko edo UDAko partaidea izatea da.

Ordaindu beharreko kuotei dagokionez, bazkide direnek 350 pzta ordaindu behar dute, ez direnek 500pzta eta 16

urte beherakoek 200pzta. Honez gain, azpimarratu gura dugu, erabiltzaileek zaborra jaitsi behar dutela refujioa erabiltzen duten guztietan, azken puntu hau garrantzitsua da oso, ingurua eta batez ere refujioa garbi mantentzeko.

Bestalde, arduradunek esan digutenez, refujiotik jende asko pasetan da bai udan eta baita neguan ere. Ia urteko asteburu guztietan beteta dago eta astebarruan joateko ere jendeak eskatzen du.

Refujioak sukaldeaz gain, su bajua, lo egiteko solairu bi eta komunak dauzka. Denera 12 lagun sartu daitezke.

Orain, barriz, berriketa batzuk egiteko asmotan ere badabiltza. Izan ere, teilatuko teila batzuk apurtuta daude; itofinak daude; beraz, teilatua konpontzea, teileria barria ipintzea eta komunak txukuntzeko asmoa daukate.

Baina jakina, konponketa horiek egiteko dirua behar da, horregatik dagoeneko hasi dira, bai Udalari eta baita Diputazioari ere, diru laguntza eskatzeko, lehenengo pausoak ematen.

Espero dezagun, hurrengo albistea, diru laguntza jaso dutela eta barritze lanak martxan daudela izatea. Horren zain egongo gara.

■ Datorren zapatuan, 4'15etan, preferente mailako UDAk, Zarautzen kontra neurtuko ditu indarrak Ibarraiko futbol zelaian. Zapatura aurreratu da neurketa Dimekan Aratusteak direlako.

Bigarren errejional mailakoek Betigazte taldea izango dute aurrean.

Eta UDAko neskak Irunera joango dira Dunboa taldearekin indarrak neurtzera.



Ikusi berri dugu Perurena indartsua harri pisutsu bat jasotzen. 320 kg. ei zuen harriak. Eta denok txundituta, harrituta. Horiek omen dira gure herri ezaugarriak: jan, edan, harriak jaso (eta zenbat eta handiagoa hobe), gure artean borrokan, beti nor gehiago. Baina eta burua erabili...? Zertarako?

Lehen, norgehiagoka hauek ere bazuten euren arrakasta. Argazkiko kiosko gainean, 1952-53. urte inguruan indar / jangura postura jokatu zuten. Batetik Arkarazoko Baltasar Bengoak, kana erdiko enborra ebatzen; eta bestetik Emeterio Altube Errekabiartekok, txuleta pareta jaten. Azkenean koruetarrak irabazi zuen, eta bukatu zuenean, jende aurrean jarri eta hau bota omen zuen:

Baserrian jaixo
baserrian bizi.
Kalera etorri
eta bertan be nausi.

Eta hor, munduan zehar, nork asmatu ez dakigun irudia isladatzen saiatu izan gara eta dirudienek ahaleginak dirau. Hori ba..., jan, edan, trabesean, pentsau gutxi...A! eta asuntua...bapez!

Euskaldunok zakarrak baina oso jatorrak ei gara.

Behar bada gure patua izango da.

Santu ta Santak



J.J. Aretxaga

Esaera zaharretan gezur gutxi esaten dela esaten dugu zaharrok, eta horrela esaerak esan eta esan ibiltzen gara. Eguraldia erdi zorotuta dabil, batean eguzkia eta eguraldi epela eta bestean edurra. Dena dela, bete zen gurasoei entzundako esaera zahar hura: Kandelariok edurra dario, San Blasek lagunduko dio. Edurra mendietan eta bedeinkazioak elizetan, San Blas egunean jakina (San Blas eguna otsailaren hiruan da Joxebi, otsailaren 3an). Eta San Blas egunean Apotza-etxebarriko ermita inauguratu zen, dotore-dotore eta barriztuta utzi dute. Hori dela eta, M^o Jesus Aramburu Kultura Diputatua izan zen inaugurazioan. Meza Don Bitorianok eman zuen eta monagilo edo akolito lanetan Mikel Igartua Ezkibel gaztea izan

zuen.

Hilaren 3an San Blas eguna izan bazen, 5ean Santa Ageda eguna ospatu zen. Santa Ageda mutilak gero eta gutxiago direla pentsetan zait, behar bada nesken laguntza eskatzen hasi behar lukete, taldea haunditzearren. Euren artean zaharrena nor zen asmatzea gatxa da, baina, gazteena, barrez, ez. Gazteena Urki Errasti izan zen. Eta eurekin giroa animetan neska bi ibili ziren, soinujo-leak Miren Lasagabaster eta Larraitz Aranzabal izan ziren.

Ospakizunekin jarraituaz, benetan ospatzekoa da Azatzan gertatu den akontizimentua, Azatzako elizako erlojua konponduta dago. Jose Ignacio Arkauz, Matiku baserrikoa izan da erlojua martxan jarri duena. Konponketa lanak kanpokaldetik egin behar zirenez eskalatzaile gazte batzuen laguntza behar izan zuen. Zorionak denei.

Inoiz martxa galdu ez duena herriko korua izan da, lehengo egunean egindako bileran zuzendaritza batzorderako kide barri bi aukeratu zituzten eta gazteak gainera: Jabier Markos eta Iñaki Agirre.

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu

deitu: 79 01 05

Arratsaldeko 3retatik 7ak arte



SARIA: k-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

**Ze izen du argazkian ageri den
baserriak?**

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean)
egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna: Egileor baserria.

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea **ANE ARENAZA. Zorionak.**

Erantzuna:.....

Izen-abizenak:

Helbidea:.....

Tfnoa:.....

12 ZAPATUA

• Futbol partidua: U.D.A - Zarautz K.E.

13 DOMEKA

• Ihauteriak. (Ikus egitarau berezia)
• Arratsaldeko 7retan, **1994ko kinttoek, ohizko dantzak dantzatuko dituzte** Herriko plazan.

15 MARTIZENA

• Ihauteriak. (Ikus egitarau berezia)

17 EGUAZTENA

• Udaletxeko Ganbaran, arratsaldeko 3,30retan, **Tril emakume taldeak antolatuta, hitzaldia; "Sendabelarren ezagupena eta erabilera. Enplastuak, labatibak eta kaptasplasmak"**. Emalea:

Alberto Altuna.

18 EGUAKOTXA

• Arratsaldeko 7retan Zaraia Mendi taldeak, Zaraia zineman filme bat eskainiko du.

19 ZAPATUA

• Gaueko 10etan, Zaraia zineman, "LA TAPADERA" filmea.

20 DOMEKA

• Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Udalaitzera.**

• Murruxio Mendi Elkartearen urteera: **Gatzaga, Elgeamendi, Alabita.**

• Zaraia zineman arratsaldeko 4,30etan "LA FUERZA DE UNO" eta 7retan "LA TAPADERA" filmeak.

22 MARTIZENA

• Arratsaldeko 4,30etan Udaletxeko ganbaran, Ongizate sailak antolatuta **"Meno-pausia"-ri buruzko to-paketak.**

ARETXAZOKA

Lana

✓ Edozein mota-tako lanak garbira pase-tan ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 79 77 59 telefono zenbakira eta Fernandez galdetu.

✓ Zure aulkia hondatuta baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deigun 79 15 96 telefonora.

Etxebizitza

✓ Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 79 29 19 telefonora.

✓ Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

✓ Pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak 71 47 10 zenbakira deitu.

Etxebizitza

✓ Pisu bat saltzen da Lausita kalean. 90 m2 ditu eta garajea ere. Interesatuak 8etatik aurrera 79 86 71 telefonora deitu.

✓ Pisu bat bila nabiltzen Aretxabaletan. Bi edo hiru logela jantzita eukitea gustatuko litzaidake. Interesatuak deitu 79 84 67 telefonora.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta bar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SAGASTA
ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84

ITURGINTZA

JJ

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA


ARLUTZ
TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

EXPRESS
AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

T X I L A R R A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

RKL

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA
KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

Optica
REGIO

Loramendi, 10
☎ 79 98 21

Mobiliario
ARENZA

ALTZAIKURAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

ANDONI ALTUBE

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
☎ 79 10 60

ANEK BAI JAKIN!

V



HERIBIDE (94)